

**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

### **UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA**

#### **BERTARATUAK**

**alkate-udal burua**

LEIRE GORDO CASTRO

**zinegotziak**

JOSE M<sup>a</sup> SARASOLA ETXEBERRIA

AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA

ENEKO ELOLA JAUREGI

OIER MINTEGI ZEBERIO

**IDAZKARIA**

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2016ko urtarrilaren 25ean, arratsaldeko 19:30etan, eta Udaleko alkate udalburua, Leire Gordo Castro izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

### **GAIK**

#### **LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

#### **BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

654/2015 Dekretua

670/2015 Dekretua

17/2016 Dekretua

25/2016 Dekretua

29/2016 Dekretua

664/2015 Dekretua

10/2016 Dekretua

19/2016 Dekretua

27/2016 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

**3.- IRUNZUBI POLIGONOAN DAGOEN LURSAILAN EGURRA GORDETZEKO KONTZESIO-ADMINISTRATIBOAREN LEHIAKETA. BALDINTZA PLEGUEN ONARPENA**

Prozedura Irekiaren bidez, Irurzubi Poligonoan dagoen Lursailan Egurra Gordetzeko Kontzesio Administrazioaren lehiaketa arautzen duen baldintza partikularren plegua, aholkularitza eta laguntzako kontratuko oinarritzko lege gisa erabileko den Baldintza Plegua, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da:

**IRUNZUBI POLIGONOAN DAGOEN LURSAILAN EGURRA GORDETZEKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN LEHIAKETA**

**1.- Kontratuaren Xedea**

Lizartzako Udala Irurzubiko Industrialdean kokatuta dagoen 1. Poligonoko 246 lursailaren jabea da lehiaketa publikoa irekitzen du bertan dagoen lursailen mendiko egur esplotazioaren egurra gordailu bezala erabiltzeko.

**2.- Araudi Aplikagarria**

Esleipena plegu honetan agertzen diren baldintzetara doituko da.

Administrazio emakida kontratu hau, ondare gaietako bere araubide zehatzarekin arautzen da eta ondorengo izango zaio aplikagarri:

- .- Azaroaren 3ko Administrazio Publikoen Ondarearen 33/2003 Legea, aplikagarri denean.
- .- Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legea eta toki araubideko beste xedapenak.
- .- Tokiko Erakundearen Ondasunen Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.

Gainera, emakida honako administrazio klausula partikularren eta baldintza teknikoaren pleguengatik arautuko da. Lizitazioari buruz, bere esleipena azaroaren 14ko 3/2011 Errege Lege Dekretuak arautuko du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duena eta baita urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duena.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

Aurrekoek arautuko dute aplikagarri zaizkion gaietan eta beste administrazio araudiak eta horien ezean, zuzenbide pribatuko araubideak.

## **2.- Kontratuaren Iraupena**

Kontratu honen indaraldia, esleipen hartzaileari esleipenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera HAMAR URTEKOA izango da.

Luzapenak. Kontratu hau luzatu ahal izango da, guztira gehienez eta 5 urtera iritsi arte, hasierako epea amaitu eta bi alderdiek elkar hartuta luzatzeko erabakia hartzen badute. Horretarako, hasierako aldia amaitu baino gutxienik bi hilabete lehenago, esleipen hartzaileak Lizartzako Udalari kontratuaren luzapena eskatzeko asmoa jakinaraziko dio, eta Udalak, adostasuna azalduko dio, espreski erabakitzen eta hasierako aldia amaitu aurretik esleipen hartzaileari jakinaraziko diona.

## **3.- Izapideak, prozedura eta adjudikazio modua.**

- a) Izapidegintza: Arrunta
- b) Prozedura: Irekia
- c) Esleipen Modua: Lehiaketa

## **4.- Enkanterako Neurria**

Kontratuaren esleipendunak, Lizartzako Udalak landu eta erredaktatu obra proiektuaren 22.708,76 €-tako kopurua ordaindu beharko du. (Bez barne)

Era berean, Lizartzako udalak egikarrituko duen Obra zuzendaritzaren kostua ordaindu beharko du, 2.976,60 €. (Bez barne)

## **5.- Bermeak**

Esleipendunak, 250,00 €-tako behin-betiko fidantza bat jarri beharko du.

## **6.- Dokumentazioa eta informazioa non eskuratu:**

Lizartzako Udala, Askatasunaren Plaza, 1 – 20490 Lizartza

Telefonoa: 943 670 700 – Fax: 943 674 976.

[www.lizartza.eus](http://www.lizartza.eus) (Kontratistaren profila).



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

### **7.- Kontratastaren baldintza espezifikoak**

Lehiaketa honetan, Baldintza Pleguetan ezarritakoaren arabera pertsona fisiko edo juridikoek parte hartu ahal izango dute.

### **8.- Eskaintzen aurkezpena**

Lehiaketa honetan esku hartzeko eskaerak, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 20 egun naturalen epean aurkeztu beharko dira Udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, goizeko 08:00etatik, 14:00ak bitartean.

Eskeinta gutun azal itxi batean aurkeztuko da eta ondorengo izenburua izango du "IRUNZUBI POLIGONOAN DAGOEN LURSAILAN EGURRA GORDETZEKO KONTZESIO ADMINISTRATI-BOAREN LEHIAKETA".


Sobreak barruan ondorengo dokumentazioa jaso beharko du:

- 1.- Proposamena egiteko eredia modu egokian bete eta sinatua egotea.
- 2.- Eskaintza aurkezten duen pertsonaren NAN kopia eta pertsona juridikoen kasuan, enpresariaren izaera juridikoa egiaztatzen duten dokumentuak.
- 3.- Mendiko egurraren esplotazioan 10 urteko esperientziaren egiaztapena.
- 4.- Lizartzako mendietan egurraren esplotazioan jarduera egikaritzen denaren egiaztapena.
- 5.- Kontratuaren xedarekin proposatzen diren hobekuntzak jasotzen dituen idazkia.

### **9.- Proposamena egiteko eredia**

..... Jaun/anderea, ..... bizi dena, NAN zenbakia ....., adinez nagusia. Neuk adierazia:

- 1.- Lizartzako Udalak deitu duen, Lizartzako Irurzubi Poligonoan dagoen lursailean egurra gordetzeko lehiaketan onartutzea eskatzen duela.
- 2.- Ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegileko 20. Artikuluak aurreikusten duen ezgaitasunik edo bateraezintasnik ez dut.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

- 3.- Baldintzen pleguak eskatzen dituen agiriak honekin batera doaz.
- 4.- Lehiaketako baldintza ekonomikoak eta administratiboak oso osorik onartzen ditut, baita lehiaketari nahiz adjudikaziodun bezala haren ondoriozko betebeharrak guztiak ere.
- 5.- Industria Nazionala eta Lana babesten dituen legeak xedatzen dutena, aurreikuspena eta Gizarte Segurantzaren barne, betetzeko hitza ematen dut.

Lizartzan, 2016ko ..... ean.

**10.- Kartzail Itxiak Irekitzea**

Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo laneguneko eguerdiko 13:00etan irekiko dira kartazal itxiak, Lizartzako Udaletxean. Ekintza publikoa izango da.

**11.- Esleipen irizpideak**

Proposamenak balioztatzeke eta eskaintza abantailatsuenaren zein den erabakitzeke, ondorengo esleipen irizpideak hartuko dira kontuan:

- 1.- Lizartzako mendietan egur jardueraren egikaritzea (20 puntu).
- 2.- Mendietako egurraren esplotazioan 10 urteko esperientzia izatea (20 puntu).
- 3.- Hobekuntzak (10 puntu).

**12.- Kontratazio Organoa**

3/2011 E.L. Dekretuaren 3. Ataleko Bigarren Xedapen Gehigarriarekin ados, honako esleipena egiteko eskumena duen organoa Tokiko Gobernu Batzordea izango da.

**13.- Esleipendunaren eskubideak eta betebeharrak**

- Erabilitako domeinuaren zatia egoera egokian mantentzeko betebeharrak.
- Esleitutako jabari publikoaren zatia berriro itzultzea, hura jatorrizko egoeran ipiniz.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

- Erabilpenerako onduasunak administrazioa-rentzat aske uzteko betebeharra, epearen barne, eta administrazioak duen eskumena onartzea bere kabuz jaurtiketa adostu eta aurrera eramateko.
- Ondasunei eta horiek helburu duten erabilerari eragindako kalte eta galerei dagokion kopurua ordaintzeko betebeharra.
- Egurra gordetzeko proiektuaren esekuzioaren prezioa ordaindu.
- Esleipenaren xedeari begirunea izatea eta esleipenean ezarritako mugak gordetzea.
- Hirugarrengoei sortutako kalteak estaltzen dituen eta gainera Lizartzako Udala hirugarrengo gisa hartzen duen aseguru poliza bat sinatua izateko betebeharra.
- Zerbitzuaren titulartasuna ez lagatzea, azpialokatzea edo aldatzea horretarako udaleko baimenik gabe.
- Udalak edozein unetan eskatu ahal izango ditu, eta kontratista ematera behartuta egongo da, pertsonalarekin sinatutako kontratuei buruzko dokumentazioa, gizarte segurantzako altak eta eskatzen duen kontratuaren exekuzioarekin lotutako beste edozein informazio.

#### **14.- Udalaren eskubide eta betebeharrak**

- Esleipenaren xeden den ondasuna esleipendunaren eskura jartzeko betebeharra.
- Amaitu aurretik emakida bertan behera uztea interes publikoko arrazoiak horrela eskatzen badute, sortzen diren kalteak ordainduta edo ordaindugabe horrela dagokionean.
- Uneoro beharrezko administrazio lanak, osasun zaintza eta agintea eskatzen duten eta bere eskumenekoak diren beste funtzioak betetzea.
- Udala behartuta dago esleipenduna esleipenaren erabileran mantentzera eta kalteordainak ematea horrela dagokion kasuetan. Esleipena jabetza gabe eta hirugarrenei kalterik gabe ematen dela ulertuko da.

#### **15.- Administrazioaren eskubideak**



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

Kontratazio oranoak, 3/2011 E.L. Dekretuaren 210 artikularekin ados, ondorengo eskubideak ditu:

- a) Kontratuaren interpretazioa.
- b) Kontratuaren betetzeak sortzen dituen zalatzen ebazpena.
- c) Kontratua aldatzea interes publikoko arrazoiengatik.
- d) Kontratuaren amaitzea adostu eta horren eraginak erabakitzea.

#### **16.- Esleipenaren amaiera**

Emandako esleipena ondorengo arrazoiengatik amaituko da:

- Esleipendunaren heriotza, erretiroa edo halabeharreko ezintasuna edo izaera juridikoaren amaiera.
- Emakidaren epeare amaiera.
- Emakidaren ondasuna desagertzeagatik edo desafektatzeagatik.
- Esleipenduaren uko egite espresagatik.
- Erreskateagatik.
- Epaitegiaren ebazpenagatik.
- Esleipena edo baimena eman zuen organoak esleipendunari ezarritako beste edozein betebeharrak ez betetzeagatik.
- Udalaren eta esleipendunaren arteko akordioagatik.
- Esleipena arrazoi zuten egoera sozioekonomikoen amaieragatik.

Esleipena arautzen duten baldintza orokor edo zehatzetan aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.

Irunzubi Poligonoan dagoen Lursailan Egurra Gordetzeko Kontzesio Administrazioaren lehiaketa arautzen duen baldintz apartikularren plegua aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

#### **4.- 2016 EKITALDIAN ORDAINSARIA %1 GEHITZEA**



**LIZARTZAKO**

**UDALA**

**GIPUZKOA**

2016 ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean zeazten denaren arabera, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak % 1 gehitu beharko lirateke, 2015eko abenduaren 31an indarrean daudenean aldean. Horrela, erkaketako bi epealdietarako homogeneousotasuna lortuko litzateke langileen kopuruari eta antzinasunari begira.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak % 1 gehitzea, aho batez onartu da.

**5.- LANKIDETZA HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA LIZARTZAKO UDALAREN ARTEKOA, TRAFIKOKO ZEHAPEN PROZEDURAREN ONDORIOZKO EGINTZAK BITARTEKO ELEKTRONIKOEN BIDEZ JAKINARAZTEARI BURUZKOA**

Idazkaritzak 2016ko urtarrilaren 21ean egindako txostena ikusi da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Lizartzako Udala Toki Erakundearen arteko Lankidetza Hitzarmena onartzeko aplikatu daitezkeen legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

Lankidetzarako hitzarmenaren negoziatutako testua 2016ko urtarrilaren 19an jaso da udalean.

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2016ko urtarrilaren 21eko idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:

**ERABAKIA**

**LEHENA.** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Lizartzako Udala Toki Erakundearen arteko Lankidetza Hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan.

**BIGARRENA.** Erabaki hau hitzarmenaren testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.2. artikuluan xedatzen duenaren arabera.





**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

**HIRUGARRENA.** Alkateak, udalbatza honetako udalburua den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-arabidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Erabaki hauek Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzari jakinaraztea.

**6.- BESTELAKOAK**

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 20:00etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

**ALKATEAK**  
Izpta: Leire Gordo Castro

**IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK**  
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia